

Eskola eta nazio identitatea.

Joxe Manuel Odriozola. Donostia

1. Nazio-identitatearen osagarriak

Hizkuntza: komunikazio-tresna eta nazio-taldearen identitate-eraikitzaile moduan, mezuak eta esanahiak komunikatzearekin batera kultura-komunitate jakin batekiko atxikimendua eta identifikazioa garatzen eta sozializatzen ditu. Hizkuntza ez da komunikazio-tresna hutsa.

Kultura: oinarrizko balio, interes, erreferentzia eta irizpideen konpartitze-sistema legitimatua eta onartua komunitate jakin batean; aho bateko onarpena duen neurrian inork ez du zalantzan jarriko. Esate baterako: erdararen erabilera inork gutxi jarriko du kolokan.

Ideologia: talde nazional baten balio, interes eta erreferentzien konpartitze-sistema, beste nazio-identitateekiko diferentea: hegemoniak bakarrik legitimatzen du jardura ideologikoa, gainerakoan gatazka-iturri izaten da, orduan bakarrik bihurtzen da komunitate baten oinarrizko erreferentzia eta irizpide onartua edo kultura. Esate baterako: euskararen erabilera auzipean eta susmopean jartzen da, herri honetako herritar gehien-gehienek ez dute beren oinarrizko kultura-balio funtzionalizat.

Historia: denboraren mamitze eta gauzate material eta sinboliko jakin bat herri-nortasun eta jardura zehatz baten arabera; historiaren inguruko interpretazio-borroketa oroimen historikoa eratzen duten identifikazio-borrokak daude jokoan kontrajarritako nazio-ideologiaren arabera.

Lurraldea: espazioaren antolamendu fisiko eta sinboliko jakin bat herri-nortasun eta jardura zehatz baten arabera; nazio-herri batek ezin du berari dagokion nortasun iraunkorrik egituratu oinarri material hori gabe.

2. Nazio-identitatearen osagarriak nola ezarri, zabaldu eta sozializatzen dira?

Estatu aurremodernoaren eta batez ere Estatu modernoaren erakunde eta adar hauetan:

Administrazioan: nola militarrean hala zibilean.

Eliza (monasterio eta unibertsitateetan): gizarte aurremodernoan ideologia nazionalistaren ezarpen gune nagusiak izan ziren; batez ere hizkuntza idatziaren oinarriak finkatzeko orduan, eta hizkuntza idatzi horren inguruan nazio-sentimendua eta identitatea herritarren artean zabaltzeko aroan. Hizkuntza idatziak ahozkoak ez bezalako eragina izan zuen gaur egungo Nazio-estatu hauen sorreran eta egituratze-prozesuan.

Eskola: gizarte modernoaren antolakuntzan gizarte hori egitura nazional jakin bat bihurtzeko prozesuan eskola izan da oinarrizko tresna eta erakundea; Estatuaren erakunderik eragingarriena modernizazioaren hainbat fasetan hizkuntza, kultura eta ideologia *nazionalak* sozializatzeko zereginean.

Lana: sortutako industrigintzaren eta hirigintzaren esparruko hizkuntza bakarra Estatuaren hizkuntza *nazionala* izan da. Esparru horretan komunikazio, ezaguera eta kultura guztia hizkuntza arrotzean gauzatu da hemen; eta hemen bezala, Estaturik gabeko milaka herritan gauza bera gertatu da. Hizkuntzen, pentsaeren eta kulturen sozializazioaz ari garenez, ez dezagun ahantzi lan-esparrua dela sozializazio-gune nagusia gaur egun: hor erabakitzen da batez ere elkarren ondoan bizi diren hizkuntzen nondik norakoa.

Hedabideak: gaur egungo gizarte-moldean hedabideak dira herri-identitatearen oinarrizko informazio, kultura eta erreferentziak egituratzen dituztenak. Horiek eraikitako erreferentzia ideologiko eta kulturean arabera mamitzen da iritzi publikoa eta nazio-zentzua.

Esandakoan sakonduz, zera erants dezakegu hemen:

Hizkuntza nazionala: etnia eta nazionalitate bat baino gehiago zeuden Estatu-lurraldeetan. Estatu horrek bere etniako hizkuntza *nazionala* bihurtzeko asimilazio-prozesuan eskola nabarmendu da beste guztien gainetik.

Hezkuntza nazionala: curriculum formalaren eta informalaren barruko eduki, balio eta erreferentzia nagusiak Estatuak eraiki nahi zuen nazioaren araberakoak izan dira. Hizkuntza-ordezkapenaren eta etnozidioaren aparatuerik nagusia eskolan aurkitu du Estatu totalitarioak.

Kultura nazionala: kultura bakarra, ilustrazioak-modernitateak ezarritako homogeneizazioaren ildotik, bere mendeko herri-kulturak erabat ordezkatu-desegin arte. Eta hori egiteko legitimazioa ideologiko hau: balizko hiritar abstraktuaren izenean, legearen aurreko berdintasuna aitzakiatzat harturik, herritar horrek bere izaera historiko eta kulturalik ez balu bezala.

Historia nazionala: iraganik gabeko herri, "historiarik gabeko herri" bihurtu ditu Estatu totalitarioak bere mendean hartutakoak. Hori egiteko, bere historia nazionalaren mitologia asmatu du, bere naziotasunaren sustrai eta oinarri teorikoak zilegitzeko. Berak monopolizatzen duen denbora historikoaren logika ezarri du eskolako umeen pentsaeran.

Lurralde nazionala: kontzentrazio-eremu baten itxura hartu du Nazio-estatuak mugatu duen espazio geografikoak. Hor barruan biziko bazara, hark ezarri dizkizun baldintzetan bizi beharko duzu, nahiz eta zure nazio-identitateak zerikusirik ez izan haren hizkuntza, kultura, historia eta gainerako osagarriekin. Hori da eremu geografiko horren barruan bizitzearen ordaina: etnozidioa ez denean, genozidioa.

3. Eskola eta nazio-identitateen egungo egoera gurean

a) Euskaldungoaren egoera

Euskara: Hizkuntza diglosikoaren ajeak: funtzioz, eremuz eta demografiak murriztua eta txikitua izan den hizkuntza menderatu baten kinka larria.

Euskal kultura: Euskaldungo murriztu eta txikitu horrek bakarrik konpartitzen duen kultura-sistema eta sentiera, erdal komunitate hegemonikoak ez baititu bere egiten kultura horren oinarriko erreferentziak.

Euskal ideologia: euskal herri izatearen alde diharduen pentsaeraren, teoriaren eta praxiaren jokabidea eta sentiera, erdal nazio-taldearekiko kontrajarria. Ideologiak talde-interesak ditu bere izatearen funtsa eta arrazoi.

Euskal historia: euskaldunon historia geure herri-interesen arabera garatzeko eta sozializatzeko baliabiderik ez dugun interpretazio-modua; espainolen eta frantsesen interpretazio hegemonikoak itotako ikuspegia.

Euskal hedabideak: jaiotzen hasi berriak diren informazioaren, kulturaren eta ideologia-interpretazioen kimu ahula. Ahultasuna guztiz larria da euskarazko hedabide idatzietan.

b) Erdal komunitatearen egoera

Erdarak: ezinbesteko hizkuntzak Euskal Herrian inor biziko bada. Estatu-hizkuntzak eta hizkuntza menderatzaileak. Hizkuntza antagonikoak euskaldungoaren garapenerako.

Erdal kultura: euskaldun orok ere bere egin behar duen kultura baserri zuloren batean biziko ez bada. Euskaldunok ere konpartitu behar dugun kultura, elebidun garen bezalaxe, kultur bitasuna indarrenez ezarri zaigulako.

Ideologia espainiarra edo frantsesa: euskaldunon izana eta egungo izatea errespetatzen ez duen ideologia totalitaria. Nazio-izatearen tasunak eta keriak beretzat bakarrik monopolizatu dituen jarrera eta jokabidea.

Historiografia espainiarra eta frantsesa: Estaturik gabeko herriak "historiarik gabeko herriak" bihurtu dituen ideologia inperialista.

Erdal hedabideak: gauzen eta gertaeren interpretaziorako erreferentzia markotzat Espainia eta Frantzia hartzen dituzten komunikabide kolonizatzaileak.

4. Eskola eta euskal identitatearen garapena

Garapenaren baldintzak:


Nazio-identitatearen garapena **nazio-botereak** sortarazten duen gizarte-dinamikari zor zaio.

Nazio-botere horren **indarrak eta izaerak** determinatuko du euskal nazio-identitatearen sistema osatzen duten osagarrien (hizkuntza, kultura...) bilakaera. Nazio-botere hori **euskalduna den neurrian bakarrik** da baliagarria eta eragingarria euskal identitatearen garapenerako. **Euskal**

Herriko boterea ez da **euskal boterea**: boterearen izaera euskalduna edo ez euskalduna ez du determinatzen leku geografikoak, botere hori gauzatzen den gizarte-harremanetan nagusitzen diren identitate-zeinuen erabilerak baizik (zein hizkuntza? zein ideologia? zein historia? zein erreferentzia?...). Euskal Herriko gizartea sortzen eta bersortzen duten gizarte-harremanak **euskal identitate-sistemaren arabera** egituratzen diren neurrian bakarrik eraikitzen da Euskal Herria (Euskarazko Herria). Botere-konzeptua zentzu zabal eta malguan hartu behar da. Adibidez: hizkuntza bera ere botere-iturri da, beste edozein osagarri bezala, hizkuntza horrek hitzunari bere **bizitza soziala eta pertsonala egiteko balio** dion neurrian.

Eskola euskaldunaren dialektika

Eskolaren baitan parte hartzen duten eragile, faktore eta elementu guztien arteko elkarreraginak determinatzen duen eskolaren izaera nazionala, kulturala eta linguistikoa. Elementu hauen arteko dialektika izango da eskolaren izaera mugatuko duena:



Euskal eskola nazionalaren erronka.

Euskaltasunaren ardatzean eraikitako eskola-eredua. Euskarak gainerako euskal nazio-identitate eta nazio-dinamikarekin dituen harremanetan erabakiko da euskararen erabilera. Beraz, Eskolak euskal hitzunak sortuko baditu, erdaldun bezain euskaldunak gutxienez, elkarreraginaren dinamika hori oinarritzko baldintza da.

